

KU KLUX KLANEN BABESA DUENAK ORDEZKATU DU AEB-ETAKO LEHEN PRESIDENTE BELTZA



Axier Lopez
@axierL

Donald Trump multimilionarioa bilakatu da Amerikako Estatu Batuetako 45. Presidente, askoren ezusterako. Trumpek ez du inoiz ardura publikorik izan, bere hautagaitzak alderdi barruan zatiketa eragin du, aho bilorik gabe mezu xenofobo argiak plazaratu ditu, sexu erasoak egiteagatik dozena bat emakume baino gehiagoren salaketak jaso ditu, nazioarteko eragile, alderdi eta herritar askok bere buruaren parodia gisa ikusi dute... baina bere garaipena argia izan da. Halere, ondorengo datuak ere azpimarratu behar dira: demokraten hautagai Hillary Clintonek orotara Trumpek baino 222.000 boz gehiago lortu ditu, eta Trumpek ez du irabazi milioi bat biztanle baino gehiago duen hiri bakar batean ere. Mundu osoan errepikatzen den binomioa da: landa eremua eta hiria aurrez aurre.

Mexikoko etorkinei kriminalak eta bortxatzaileak deitzen ekin zion Trumpek hauteskunde kanpainari 2015ean. Hauteskundeak irabazi ostean hartu duen lehen erabakietako bat izan da "aurrekari penalak" dituzten paperik gabeko etorkinak kanporatzea. Mexiko eta AEBen arteko muga "indartuko" du aurrena, eta horren ondoren erabakiko du gainerako paperik gabeko etorkinekin zer egin. Gai honetan Barack Obamaren marka onduko duela dirudi. Izan ere, Bakearen Nobel saridun eta

AEBetako lehen presidente beltzak hiru milioi lagun baino gehiago deportatu ditu bi legegintzaldietan. Xenofobia eta klasismoa hauspotzen ari diren Europako alderdiak pozik agertu dira Trumpen etorreraz. Poloniako presidente Andrzej Duda eta Marie Le Pen ultraeskuindar frantsesak izan dira lehenak Trump zoriontzen, eta honek garaipenaren ostean aurrez aurre jaso duen lehen politikari europarra Nigel Farage izan da, Brexitaren bultzatzaile nagusi izan den UKIP xenofoboaren burua.

Halere, Ku Klux Klanen moduko taldeen babes publikoa jaso duen hautagaiaren garaipena ez du arrazakeriak edo sexismoak soilik azaltzen. John Steppeling antzerkigileak gordin azaltzen duenez, "liberalen akats nagusia izan da Trumpek faxismoa ekarriko zuela pentsatzea, baina ez dira jabetu faxismoa dagoeneko hemen zela". Azken urteotan -Obamaren politika neoliberalak barne- nabarmen pobretu diren ehunka milaka lagun ezinegona ondo bideratzen asmatu du Trump magnateak. Status Quo eta egungo sistemaren funtzionamenduarekin nazkatuta dagoen jende saldoaren ezinegona eskuinak bideratu du. Beste behin ere. "Aberatsa pobreen defentsan" kontraesana berriz gailendu da bestelako aukera faltaren aurrean. Trumpi aurre egiteko demokraten kanpaina eta hautagaia ezin okerragoak izan dira. Trumpen "alternatiba" Wall Streetek ondu, babestu eta sustatutako hautagai bat izan da: Hillary Clinton. Eta horri gehitu behar diogu demokraten barruan hautagaitzak sortu

duen ezinegona. Primarioetan Bernie Sanders garaile izan zen zenbait estatu garrantzitsuetan, laku handien gerrikoan- Michigan, Wisconsin eta Indianan- adibidez, demokratek bozen %10 baino gehiago galdu dute eta, are esanguratsuagoa dena, partaidetza jaitsi da. Clintonen aldean ezkerreko soslai nabariagoa du Sandersek, eta begi bistakoa dirudi bere alde egin zuten milaka lagun etxean geratu direla hauteskunde gaeuan.

Trumpen garaipenaren "ezusteak" protestak sortu ditu AEBetako hiri askotan. Istiluak eta tiroketak ere izan dira zenbait tokitan "Ez da nire presidentea" aldarrikapenaren atzean. Trump ala Clinton, kapitalismoaren bi aurpegiaren artean erabaki beharrak berriz utzi du ezkerre joko kanpo. Mendebaldeko ezkerreko alderdi gehienek "Gerraren Erreginaren" alde egin dute, "aukera ez hain txarra" omen zenaren alde. Eta AEBetan bertan ere aldeak ageri dira ezkertiarren artean. Honatx bi adibide. Batetik, Angela Davis: "Jende beltzaren lehentasuna Trump geldiaraztea da. Ez naiz Clintoni ez diodala boza emango esateko bezain nartzisista". Eta bestetik, Mumia Abu-Jamal: "Trump baldin bada clintondarren neoliberalismoa garaitzeko ordaindu behar dugun prezioa, hala bedi". Bipartidismoaren joko arauak ezkerre joko kanpo utzi dute atzera ere, eta datozen lau urteetan gatazka eta talkarik ez da faltan izango AEBetan.

Segidan garaipenaren arrazoiak eta ondorioak hobeto ulertzeko zenbait analisi eta iritzi. ■